

BERRIGARA

120. zenbakia

JARDUN ELKARTEA, Bergara


1993, urriak 1

ERANTZUN
EZBERDINA
HUELGA
DEIALDIAK

KAPIRIXO:
DEBA
GARAICO
ONDAREA
BABESTEKO
TALDEA


KIROLAK

400 GAZTETXO
AURTENGO
ESKOLA KIROLA
KANPAINAN



**NORK EKARRI
GAITU
MUNDUAREN
HIRUGARREN
MAILARA?**

FELIX IRIZAR



GIARTZU

GIMNASIOA

Boni Laskurain, 3 behea

☎ 76 35 71
BERGARA

- AEROBIKA
- MANTENIMENDUA
- MUSKULAZIOA
- KARATEA
- NIM-JITSUA

ORDUTEGIA:

7:30-13:00 / 14:30-22:00



BERRIA

Mondeo

TURBO
DIESEL
INTERCOOLER
BERRIA



San Lorentzo Poligono Industriala. ☎ 76 22 43 BERGARA

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA

CRISTOBAL, ESTOMBA, GOMEZ, MURGIENDO, OTALORA, ZUBIZARRETA, ZULUETA,
ESTEFANO, LABORRA eta RUIZ DK.ak

- Azterketa ginekologiko osoak
- Minbiziaren aurretiko diagnostikoa
- Hauraldiaren kontrola
- Txekoak
- Bularreko gaitzen unitatea
- Mamografiak
- Antzutasuna
- Antisorkuntza
- Menopausiaren tratamendua
- Dietak
- Sudurra, eztarria, belarria
- Anali klinikoak

**GUZTI HAU
ARRASATEN
BERTAN,
URRUTIRAGO
JOAN GABE!!**



Zerkaosketa, 17 etxabea.
ARRASATE. Tfnoa: 79 20 18

Argitaratzailea:
Jardun Elkartea
Errotalde Jauregia, 20.570
Bergara. ☎ 76 08 19

Berrigara
Tfnoa. eta Faxa: 76 03 97
Babeslea: Bergarako Udala.

Erredakzioa

Eneko Azkarate, Eduardo Mendibil
eta Mikel Elkorobereibar.

Maketazioa:

Eneko Azkarate eta Eduardo
Mendibil.

Publizitatea eta harpidetzak:

Alex Azkarate eta Edurne
Arenaza. ☎ 76 03 97

Erredakzio-kontseilua:

Itzi Eraña, Gorka Elorza eta
Alex Labaien.

Kolaboratzaileak: Jose Angel
Mikeo, Estepan Plazaola, Miguel
Angel Elkorobereibar, J. M.
Elxepuru, J. Oregi, A. Urzelai,
Maripi Laskurain, N. Alzelai,
Ainhoa Lete, Jon A. Bengoa, M.
Lizarralde, Monika Belastegi,
Aitziber Aretxaga, Ainhoa Bikuña,
Asier Madinabertia, Josune Iñarra
eta A. M. Goenaga.

Argazki laborategia:

Pol-Pol Argazki Taldea eta Kifu.

Komikia eta marrazkiak: Josu
Okina eta Antonio Arrillaga

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati.)

Banaketa: Txantxangorri Taldea.

Copyright:

BERRIGARA

Tirada: 3.300 ale.

Lege gordailua: SS 50/ 91

ISSN: 1130-6599

BERRIGARA ez du bere gain har-
tzen aldizkarian adierazitako esa-
nen eta eritzien erantzunkizunik.

PROTAGONISTAK

PELOTA PARTIDUAK

Astebukaera hone-
tan bertan jarriko da
martxan aurtengo Ber-
garako pelota denbo-
raldia. Larunbatero pe-
lota partiduak izango
dira Udal Pelotalekuan
eta, hasteko, honako
partidu hauek iragarri
dira arratsaldeko 4 t^r-
erdietatik aurrera: Anso-
tegi eta Oregi Arteaga
eta Azkarateren aurka,
Galarza III.a eta Errasti
aurrez aurre izango dira
4 t^r-erdiko txapelketako
partiduan eta, azkenik,
Intxaurrondo eta Andu-
eza VI.ak eta Gabilon-
do eta Buenetxeak
neurtuko dituzte inda-
rrak.

Beraz, *Empresas U-*
nidasek aste honetatik



aurrera berriz ere an-
tolatuko partiduak ditu
Bergaran.

Bergarar pelotariei
dagokinez, oraindik ez
da ziurra Zezeaga eta
Exanizek eskuz bina-
kako txapelketan elka-
rrekin jokatu duten
ala ez.

Udal Pelotalekuan larunbatean hasiko da aurtengo denboraldia

ITURRI ONETIK

Bergararrak Aconcaguara

Himalayako Cho Oyutik herrira etorri berri den Juan Ramon Garitano angiozartarra aurki beste mendi irteera bat egitekotan da. Oraingoan Hego Amerikaruntz abiatuko omen zaigu, Aconcaguara hain zuzen ere. Antza denez, bera eta Bergarako Udaletxean lankide dituen beste lagun batzu, Gabonetan (hango Uda) irtengo dira Bergararik Amerikako gailurrik garaiena igotzeko asmoz. Nortzuk joango diren oraindik zehazteke dago.

ESAN DUTE

"Nik uste dut gaur hainbeste hitz egiten dela turismoaz eta, joño, zeruko subentzioaren zai Gabonetatik inprentan sartuta dagoen Mankomunitateari buruzko liburua paregabeko abiapuntua izango litzatekeela turismo kontestu horretan sartzeko. Nik esango nioke

Mankomunitateari ondo daudela Epeleko zabortegia eta horrelako gauzak, baina beste esparru batzuk ere zaindu behar direla".


IÑIGO RAMIREZ
Historia irakaslea
ARRASATE PRESS

"Telebistak entretenitzeko tresna izan nahi du baina azken boladan mozolotzeko tresna bihurtzen ari da, gero eta gehiago gainera".

JON ANDUEZA
Kazetaria
EUSKADI IRRATIA



Aldizkari honek
Gipuzkoako Foru Aldundiaren
laguntza jaso du



Aldizkari honek
Eusko Jaurlaritzako Kultura eta
Turismo sailaren laguntza jaso du

Atsedeen zentrua
LOKARTU
Koltxoi-Denda
Bideberri z/g. ☎ 76 05 01

ZUBIETA
elektragintza
✓ Motorren bobinaketa
✓ Era guztielako instalakuntzak
Kruz Gallastegi, 2 behea
Tfnoa: 76 23 48

ETXAGI
Jatetxea
Afariak - Bataioak
Jaunartzeak
Eguneko menua
Gosariak - Bazkariak
Mahasterreka 8, Tfnoa: 76 53 12




MADE IN AMERICA

Ostirala: 22.30.

Igandea: 17.00, 19.30, 22.15.

Astelehena: 19.30.



RAPID FIRE

Larunbata: 17.00,

19.30, 22.30.



**RECIEN NACIDO Y YA
CORONADO**

Osteguna: 11.30.

Zinea

▼▼ **Whoopi Goldberg** (*El color purpura*) eta **Ted Danson** (*Cheers*) erlazio oso bitxia izatera behartuta daude. **Richard Benjamin** ezagunak zuzenduta, filme honetan situazio barregarriak ez dira faltako.

▼▼ Bruce Leeren semea (**Brandon Lee**) orain gutxi hil zen filme baten errodaian. Honako hau berak egindako azken filma duzue eta bertan bere aitak erakutsi zion borrokarako abilezia azalduko digu.

▼▼ Zine-klubaren programazioa komedia honekin jarriko da martxan. **Eric Idle** eta **John Cleese** *Monty Python* taldeko kide ohiak eta **Barbara Hershey** eta **Rick Moranis** erreparto buruan, enredua izango da nagusi.

Deiak

▼ **Eusko Alkartasunaren** eguna urriaren 10ean Usturitzen. Txartelak Alkartetxean.

▼ **Laskurain** bergarar margolariaren erakusketa Oñatiko Unibertsitatean. Urriaren 12ra arte.

▼ **Marcelino Ruizen** "Gure herria" pintura erakusketa Nahikari tabernan.

▼ **Orkestra Sinfonikoaren** kontzertua larunbatean, urriak 2, gaueko 10.30etan San Pedron.

▼ **Matinala.** "Aguila de acero 2" filmea igandean 11.30etan Novedadesen.

▼ **Begiraleak.** ASKEk deituta, begiraleen bilera ostiralean, Setan Batzoki ondoko lokalean.

Ogia

▼ **Igandea 3:** Bolintxo.

GOARDIAKO FARMAZIAK

- ▼ **Larunbata 2:** Guallar.
- ▼ **Igandea 3:** Guallar.
- ▼ **Astelehena 4:** Estella.
- ▼ **Asteartea 5:** Mozos.
- ▼ **Asteazkena 6:** Camacho.
- ▼ **Osteguna 7:** Puy.
- ▼ **Ostirala 8:** Guallar.



ETXEPARE-BILINTX

LIBURUDENDA

Ibargarai, 12 ☎ 76 40 50 BERGARA

Liburuak eta diskoak

KIROL

KARTELDEGIA

FUTBOLA

BERGARA-ARRASATE. 2.mailako kadeteak. Larunbata, 11:00.

BERGARA-ORDIZIA. Lehen erregionala. Larunbata, 16:00.

BERGARA-Sto TOMAS LIZEOA. Lehen mailako jubenilak. Larunbata 18:00.

ESKUBALOIA

BERGARA-JAUJA. Kadete neskek. Larunbata, 17:30.

BERGARA-LOIOLA. Senior mutilak. Larunbata, 18:45.

BERGARA-HERNANI. Jubenil mutilak. Larunbata 20:00.

PELOTA

BERGARA-ALEGIA. Kadeteak.

BERGARA-ARRASATE.

Jubenilak banaka.

BERGARA-DONOSTIAKO ALDE

ZAHARRA. Seniorrak.

Ostirala, 22:00, Udal Pelotalekua.



▼▼ **Kirol Argazkien XIII.** Nazioarteko Lehiaketako lanak ikusi ahal izango dira Kultur Etxean urriaren 12ra arte. Bertan 70 lan inguru egongo dira ikusgai, tartean Japon, Irlanda, Italia, Alemania, Ingalaterra edota Estatuako argazkilari onenak aurkeztutako argazkiak. Egileen eskutik, kirolaren inguruko ikuspegi ezberdinak aurkezten zaizkigu. Kultur Etxean, ohizko ordutegiarekin: lanegunetan 6etatik 8etara eta jaiegunetan 12etatik 2etara eta 6etatik 8etara.

EMAKUMEA ETA OSASUNA

I HARDUNALDIAK

URRIAK 4, 5, 6, 7, 8

URRIAK 4
ASTELEHENA

URRIAK 5
ASTEARTEA

URRIAK 6
ASTEAZKENA

URRIAK 7
OSTEGUNA

URRIAK 8
OSTIRALA

"EL ESTRESS"

"MUJER Y
SEXUALIDAD"

"ELIKADURAREN
ERAGINA
OSASUNEAN"

"MUJER Y
HUMOR"

"EMAKUMEA
ETA OSASUNA"

Hizlaria:
PILAR MAYO

Hizlaria:
PILAR OTEGI

Hizlaria:
ALBERTO ALTUBE

Hizlaria:
VIRGINIA IMAZ

OHULARI CLOWN
antzerki taldea

Ordua:
17:00

Ordua:
17:00

Ordua:
17:00

Ordua:
17:00

Ordua:
17:00

Tokia:

Tokia:

Tokia:

Tokia:

Tokia:

KULTUR ETXEA

KULTUR ETXEA

KULTUR ETXEA

KULTUR ETXEA

KULTUR ETXEA

ANTOLATZAILEAK: EMAKUMEAREN LAGUNTZARAKO ZERBITZUA / JARDUN ELKARTEA
LAGUNTZAILEAK: GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA / EMAKUNDE

Mutikoak, maixuak, semeak eta bestelakoak

Pozez irakurri nuen joan den astean Josu Oregik idatzitako artikulu interesgarria eta guztiz ados nago berak azaltzen duen mezuarekin. Eta badu nik azalduko dudan gai honek Josu Oregik azaltzen zuenarekin parekotasun bat: bi kasuetan ere euskara erdararen morroi bihurtu dugula. Josu Oregik lexikoaren gaia aztertu zuen, nik hizkuntzaren sexu bereizkeriazko erabilpena aipatu nahi dut.

Orain dela gutxi argitaratu du Emakundek euskaraz dihardugunean sexu bereizkeriarik ez egiteko gomendio sorta bat. Zerbaiten premia izango dela uste dut, izan ere lehenago neska-mutikoak eta maixu-maistrak zebiltzan eskoletan momentu honetan mutikoak eta maixuak baino ez baitabilta, askoren hitzetan behintzat.

Laster, norbaiti "gure aitak" entzuten diogunean ez dugu jakingo aitzala aita-amez ("nuestros aitas") diharduen. Norbaitek hiru seme zituela irakurtzen dugunean, ez dugu jakingo denak semeak ziren ala tar-

tean alabaren bat ere bazen.

Beharbada, norbaitek uste izango du haundiegiak botatzen ari naizela baina ni ezetzean nago. Oraintsu irakurri dut egunkari batean Gurutze lanzi bere herriko "Seme kuttun" izendatzea proposatu zutela. Eta ni seguru nago hori irakurri zuten euskaldun askori eta askori ez ziela, tamalez, begiko minik sortaraziko.

Kontrakorik ere ari gara ikusten: euskarak ez du orain arte genero bereizketarik egin izan "público"/"pública" gisakoan artean. Bada, horra non oraintsu izan den Eskola Publikoaren Lege kontu horrekin, maisu, maistra eta hezkuntza munduko gaineratiko jaun-andre mordo bat ibili diren, jo eta sua, halako ikastola "publikara" pasako dela eta beste halakoa ez dela "publikara" pasako.

Pentsatzen dut gaiak merezi duela arreta pixka bat eta sexu-bereizkeriaren kontrako jarrerak indarra hartzen ari diren une honetan kontu izan beharko genukeela lehendik ez dauden tokian geuk ez sortarazteko.

E.P.O.

Aste honetatik aurrera, azken urtebetean sail fijoak izan den "Bergarako elkarteak" izenburuko atala ez duzue BERRIGARAKO orrialdeetan aurkituko. Izan ere joan zen astea alearekin eman genon amaiera Ainhoa Leteren eskutik zuenganatu dugun herriko soziadeei buruzko informazioa jasotzen zuen ataltxoak. Laster batean astekaria itxuraldatu eta sail berriak sartzeko asmotan gara. Laster izango duzue horren berri.

BERRIGARAKO ERREDAKZIO KONTSEILUA

Tiira ba!



Josu Okina

Erantzun ezberdina Bergaran, asteleheneko greba deialdiak

Denda, taberna, Udaletxea eta eskola batzuk itxi ziren bitartean, normaltasuna nagusi lantegietan

Erantzun ezberdina izan zuen Bergaran, Gurutze Yanci eta Xabier Kalparsororen hilketengatik protestatzeko HBk Gipuzkoa osorako astelehenean deitu zuen greba deialdiak. Herriko taberna, denda, eskola batzuk eta Udal bulegoak itxita izan baziren ere, fabrika gehienetan normal lan egin zen.

Goizean goiz, denda eta taberna gehienek atak zabaldu zituzten, baina egunak aurrera egin ahala pixkanaka-pixkanaka ixten joan ziren eta arratsalde partean, itxita zeuden. Aurrezki kutxa eta banketxeak, berriz, zabalik izan ziren.

Institutua, Lanbide Hezkuntza Eskola eta Udal Euskaltegiak greba

egin zuten bitartean, Aranzadi Ikastola, Mariaren Lagundia eta San Martin Ikastetxean klaseak normal eman zituzten.

Udal langileek, asanblea egin zuten astelehen goizean eta aldeko 41 botu eta kontrako 32 botuekin (bik zuri botatu zuten), huelga egitea erabaki zuten. Udal bulegoak, Kultur Etxea, Igerilekuak eta Kirolegia itxita izan ziren. Astelehen iluntzean egitekoa zen Udalbatzaren Ezohizko Bilkura, bertan behera geratu zen eta Udal Gobernuak astelehenero egin ohi duen Gobernu Batzordea ez zuen egin.

Lantegietan, bestalde, normaltasuna izan zen nagusi. Fagorreko kataiak eta lababajillas sailak



Jarrai eta HB deitutako manifestazioak eta Bergararrak Pakeraren Alde taldearen kontzentrazioa, ustezko bi ETA kideen hilketengatik protestatzeko. Argazkian, Jarrairen manifestazioa.

huelga egin zuten.

Manifestazioak eta kalte materialak

Ustezko bi ETA kideen hilketengatik protestatzeko bi manifestazio burutu ziren Bergaran. Jarraik egindako deiar erantzunez 100 lagun inguru bildu ziren eguerdiko 12etan eta HBk deituta 300 bat lagunek hartu zuten parte iluntzeko 8etan hasi zen manifestazioan. Ordu berean, Bergararrak Pakearen Alde kolektiboak konbokatuta, berriz, 80 lagun inguru bildu ziren Fraisko-zuri plazan

HBren manifestazioa amaitu ostean, PSEren egoitzara, Herriko Etxera,

abitu ziren 30 bat lagun. Bertan ziren ertzainen kontra harrika hasi eta, ondorioz, enfrontamenduak izan ziren hauen eta manifestarien artean. Manifestariak telefono kabinetak kristalak apurtu eta zenbait banketxe eta aurrezki kutxetan pintadak egin, kristalak apurtu eta beste zenbait kalte eragin zituzten. Ertzainek, bestalde, gomazko pelotak erabili zituzten manifestariak sakabana-tzeko.

Bestalde, EITBk Elosun eta Karakaten dituen antenetan astelehen gauetan jarritako bi leherkarrik eztanda egin ondoren, ETB, Euskadi Irratia eta Radio Euskadiren seinale barik geratu ziren astartearen herriko hainbat etxe.



Asteleheneko protestadien ondorioz, telefono kabina eta zenbait aurrezki kutxa eta banketxek kalte materialak jasan zituzten.

Buzoi zabaldura

Bergarako Udalak Maltzaga-Urbina ardatzean hiritarren parte hartzeko (NIP-IGP) Interbentzio Gune Partehartzaileak aplikazio proiektuaren burutzeko faseen arabera, buzoi bat irekiko dela adierazten du, bertan edozein pertsona, talde, elkarte eta interesaturik dagoen hiritar multzo guztiak, beren iradokizun, alternatiba edo hobekien derizkioten prosamenak aurkeztu ditzaketelarik. Buzoi hori Udaletxeko Bulego Teknikoan egongo da urriaren 1etik 31ra arte, lan egunetan goizeko 7.30etatik 14.30etara.

Dantza solteko ikastaroa

Urriaren 4an hasiera emango zaio 5 urtetik gorakoei zuendutako dantza solteko ikastaroari Aranzadi Ikastolan. Klaseak astelehenetik ostiralera izango dira 5etatik 6etara. Interesatuak astelehenean ordu horretan bertan aurkez daitezke Aranzadi Ikastolan, izena eman eta klaseekin hasteko.



Emakumea eta osasuna izango dira aztergai ihardunaldietan.

Emakumearen ihardunaldiak

Datorren astean, egunero, arratsaldeko 5etan Kultur Etxean

Emakumearen Laguntzarako Zerbitzua eta JARDUN Elkarteak antolatuta, "Emakumea eta Osasuna" ihardunaldiak izango dira datorren astean Kultur Etxean.

Astelehenetik ostegunera hitzaldiak izango dira eta ostiralean, berriz, Oihulari clown antzerki taldearen emanaldia egongo da. Astelehenean Pilar Mayok "El stress" izenburuko hitzaldia emango du; asteartean Pilar Otegik "Mujer y sexualidad" izango du aztergai eta asteazkenean, berriz, Alberto Altube mediku naturista angiozarta-

rra "Elikaduraren eragina osasunean" gaiari buruz arituko da. Ostegunean Virginia Imazek "Mujer y humor" hitzaldia emango du eta, amaitzeko Oihulari antzerki taldeak "Emakumea eta osasuna" parodia eskeiniko du ostiralean. Ekitaldi guztiak arratsaldeko 5etan burutuko dira Kultur Etxean (Errotalde Jauregian).

Alazne Irazabal Emakumearen Zerbitzuko arduradunaren esanetan, "gaia, osasuna, interesgarria da eta aurreko 3 edizioetan jendearen erantzun ona jaso dugu".

UNED-BERGARA

ENPRESA LEGE-AHOLKULARITZA IKASTAROA 1993-94

ZUZENBIDE LIZENTZIATUENTZAT

ONARPEN ESKARIAK: irailaren 28tik-urriaren 9ra.

INFORMAZIOA: UNED-BERGARA ☎ 76 13 42 / 76 13 43 / 76 29 62.

ORDUTEGIA: Asteartetik ostiralera: 10:30-12:30 / 17:30 20:00.

Taberna Kafetegia

EHIZTARIAK

LOS CAZADORES

Kafea da gure berezitasuna

Zubieta 26, BERGARA

LARRAÑAGA
eta **ZUBIA**

Banatzaileak

Errioxako ardoak, olioak,
esnea, lejiak...

Martokua 32, tfnoa: 764594

LONBIDE
OINETAKOAK



Bidekurutzeta, 5

☎ 76 10 57

BERGARA



Kaleratutako sententziaren arabera, Elizbarrutiak lokala berreskuratuko luke.

Gaztetxearen aurkako sententzia

Donostiako Auzitegiak ez du gazteen errekurtsua onartu

Gaztetxearen auzian, Donostiako Auzitegiak ez du onartu gazteek aurreko sententziari aurkeztutako apelazio errekurtsua eta beraz lokala utzi beharko dute.

Juan Bautista Cremades Donostiako Auzitegiko presidentek, errekurtsuan, garai batean errenta ordaindu zela ez dela frogatzen aipatzen du; ez da alokairu kontraturik egon Gaztetxea eta Elizbarrutiaren artean eta beraz Elizbarrutiak lokala berreskuratuko du.

Gazteek azken urteotan lokalean eginiko hainbat berrikuntza lan

alokairuaren ordain modura aurkeztu zituzten baina epaileak frogaraz falta dagoela jasotzen du irten berri den sententzian.

Asteazkenean bertan asanblada izan zen Gaztetxean. Amaia Zabaleta Gaztetxeko abokatuak jakin arazi zuenez, orain, hamar egun barru Auzitegi Gorenean kasazio errekurtsua aurkeztu ez badute, sententzia erabatekoa izango da eta Epaitegiak dagozkion neurriak hartzeari ekin ahal izango dio. Gazteek zer egin erabakiko dute datozen egunetan.

Begirale deialdia

ASKE atsedeen taldeak deituta, ostiralean, hilak 8, haurrak atsegin izan, eta 17 urtetik 27 urtera dituzten gazteei zuzendutako bilera egingo da arratsaldeko 8etan Batzoki ondoko lokalean.

Mantenimendu gimnasia

Mantenimendu gimnasia klaseak emango dira Elgetako Kiroldegian astelehenetik (urriak 4) aurrera. Izenematea Kiroldegian bertan egin daiteke (2.200 pta. hiruhilabeteko eta 735 pta. hilabeteko)

Orkestaren kontzertua

Huelvan izugarritzko arrakasta lortu ondoren, Bergarako Orkestra Sinfonikoak kontzertua eskeiniko du larunbatean, urriak 2, gaueko 10.30etan San Pedro Parrokian. Programa honako hau izango da: *Alceste* (Von Gluck), *Finale* (Shostakovich), *Carpenters* (Carpenters), *El caserío* (Guridi) eta *Salve rociera* (Sanchis).

GOIERRI

Autogidarien eskola

Fraiskozuri Enparantza 5

Tfnoa: 76 41 50

BERGARA

OILAGORRA

Taberna

Barrenkale 21, BERGARA

Paper pintatuak - Pinturak

A. ZANGITU

☎ 76 19 54 BERGARA
☎ 79 91 82 ARRASATE

SANTOS IRRATI-TB

ELEKTRO TRESNAK • ARGIZTAPENA

Zuek


Sukalde altzarien erakusketa

Masterreka, 2 BERGARA ☎ 76 26 10

Ostiralean aurkeztu zen UNEDeko aretoan Kapirixo, Deba Garaiko Ondarea babesteko elkarte.

Juantxo Madariaga UNEDeko zuzendaria, Jerardo Elortza irakaslea, Lourdes Romano Deba Garaiko Udal Elkartearen turismo arduraduna eta Bitoriano Gandiaga euskaltzainak elkarte honen helburuen berri eman zuten. Juantxo Madariagak adierazi zuenez, *"beste herrialde batzutan badira talde hau bezalako talde independente indartsuak, oso ondo funtzionatzen dutenak gainera. Gero eta talde gehiago sortzen ari dira gaur egun eta gure helburua interes amankomuna duen giza talde independente eta organizatu bat sortzea izan beharko litzateke"*.

Kapirixo taldeak Etnografia, Arkeologia, Dokumentazioa, Museoa, Arki-



Unzeta Etxea.



Lourdes Romano, Juantxo Madariaga, Bitoriano Gandiaga eta Jerardo Elortza ostiraleko aurrezpenean.

Kapirixo: Deba Garaiko ondarea babesteko taldea

Sortu berri den taldearen aurkezpena egin zen ostiralean UNEDeko aretoan

tektura, Ingurua, Artea eta Ondare Historikoa sailak izango lituzke aztergai eta Madariagaren

hitzetan, *"gure kultura aniztasunaren defentsa egin beharra daukagu, egunetik egunera zapaltzen ari den ezinbesteko balorea. Ez dezagun uniformitatera jo". "Horrez gain", gehitu zuen Madariagak, *"ondarea, gure patrimonioa zabaldu eta ezagutarazi behar dugu, jendea sentsibilizatu eta espekulazioaren kontra borrokatu. Eta ahal den neurrian Administrazioarekin kolaboratu, berak baitu gauza haundiak eta interbentzioak egiteko aukera"*.*

Bazkideek 3.000 pzta.ko kuota

Bertan jakin arazi ze-

nez, talde honetako bazkide izan nahi dutenek UNEDera jo eta 3.000 pzta.ko kuota bat ordaindu beharko dute.

Bergara, Antzuola eta Elgetako kideak atzo biltzekoak ziren. Azaroren hasieran, beriz, bailarako bazkide guztien bilera egingo da, besteak beste estatutuak onartu, elkarteko presidentea, idazkaria, diruzaina eta bokalak aukeratu (bailarako herri bakoitzak ordezkari bat izatea lortu nahi da) edota taldearen izena finkatzeko (Kapirixo teiltuari eusten dion habe bat, euskarri bat litzateke, hala ere izen hori, oraingoz, probisionala da).

Hirugarren munduarekiko elkartasuna

Herri azpigaratuetan, 3. munduan alegia, pobrezia eta beharrak dira nagusi. Egoera gogor eta gordin hori pixka bat baretzeko behintzat, elkarte ugari dago inungo interes barik beraien laguntza ematen. Elkarte horietan gure herriko zenbait lagun ere aritzen dira eta beraien berri jakiteko asmoz elkarrizketatxo bat izan dugu.

Komite Internazionalistak arazoak dituzten herrialdeei laguntza ematen dien elkarte da. Beraien lana laguntza materiala eskaintzeaz gain, beste laguntza batzuk ematean datza.

Urtean zehar kanpaina batzuk antolatzen dituzte, dirua, arropak, medizina ea... batzeko. Horretaz aparte beste herrialde batzuetan eritetxe-
ren bat edo eskolaren bat egin behar baldin bada beren laguntza ematen dute.

Beste batzuren artean herriko Komite Internazionalisten barruan lanean ari den pertsonetako bat Markos Gabilondo dugu. Markosek beren lana nolakoa den adierazi digu: "gure lana gebien-

bat beste herriek duten beharretara zebazten da. Handik eskakizun bat dagoenean eskakizun hori betetzen saiatzen gara, horretarako eskakizun guztiak aztertu ondoren gure ustez beharrik bاندiena duen proiektuari ematen diogu laguntza".

Kontzientziatu beharra

Komiteek herrialde pobreek duten egoera latzari buruz gure artean kontzientziazio maila sortzeko hitzaldiak eta ihar-dunaldiak ere antolatzen

dituzte.

Herrian bertan egiten duten lanaz aparte, Komite Internazionalistak kideak herrialde pobre horietara ere joaten dira euren laguntza emateko, horiek "brigadistak" dira.

Beste batzuren artean pasa den udan hilabete eta erdiz El Salvadorren Felix Irizar bergararra izan zen. Irizar eraikuntza arloko langilea da eta El Salvadorren 16 etxebizitza eraikitzen aritu da: "Hango bizimodua gogorrragoa da eta denbora laburrez izan naizen arren

konturatu naiz hemen sabela beteegia dugun bitartean ban sabel asko butsik daudela".

Irizarrek bere esperientzia bizi ondoren han egindako lana ontzat ematen du eta orain bere buruari beste lan bat jarri dio: "bona etorri ondoren garrantzitsua da hementxe jendea jabetu dadin El Salvador eta beste zenbait herri azpigaratuetan bizi duten egoera larriaz, esatebaterako ni izan nintzen komunitatean ez zegoen ez urrik, ez elektrizitatearik eta jateko zegoen bakararra arroza eta



El Salvadorreraino abiatu zaigu Felix Irizar bergararra bertakoei etxeak eraikitzen erakustera.

frijoleak ziren. Baina hori bai euren arteko elkar laguntza izugarria zen, batak bestearen laguntza behar zuenean prest zeuden laguntza eskeintzeko".

Ez pentsa brigadistek bidaiari horiek debalde egiten dituztenik, Komiteek diru aldetik ez dabilta topera eta ondorioz brigadistek herri azpigaratuetan lan egiteaz gain, bidaiaren dirua euren poltsikotik ordaintzen dute.

Irakasleak Nikaraguara

Udan zehar klaseak emateko eta proiektuak lantzeko Jose Angel Mikeo Mariaren Lagundiko irakaslea Nikaraguan izan da. Mikeo Manos Unidasek bultzatutako proiektu batean izan genuen: "hiru astetan klaseak ematen aritu nintzen eta eskola emateaz

gain ikastetxe bateko instalakuntza elektrikoa egin eta pintatu genuen eta bi liburutegi ere prest utzi genituen".

Mikeo Granada hirian izan zen 35 egunez, beste 4 irakasle euskaldun eta beste 3 galiziarrekin batera: "han izugarrizko arazoak daude, ez irakasle eta ezta ikasleek ere ez dute liburutegi eta adibidez irakasleak fisikako liburu bat baldin badu, irakasleak ez dutenez beziketa egokirik, ez dakite programaketa bat egiten eta orduan egiten dituzten ariketa bakarrak liburuan daudenak dira, eta hori bai erantzuna zuten ariketak bakarrik".

Geografia arloan ere bertako ikasleek arazo ugari zituzten, beren bizitza osoan ez baitute maparik ikusi. Eskola emateko orduan beharrezkoa da ikastetxe egokiak izatea eta Nikaraguan horren beharrea ere badira: "60



Nikaraguar nekazariak festa egun bat ospatzen.

ikaslerentzako eskolarrereko ikastetxe bat egiteko

700 mila pzta behar dira eta konturatu gure eskolan, Mariaren Lagundian, esatebaterako 700 ikasleek hilean Coca-Cola bat ez baldin badute edaten, 4 hilabetetan 1.000 pzta. egin ditu bakoitzak eta ondorioz Nikaraguan ikastetxe bat ordain dezakete" adierazi digu Mikeok.

Pobrezia izugarria

Mariaren Lagundiko irakasleari lehen astean zehar asko kostatu zitzaion hango egoeran murgiltzea, baina hona etortzeko orduan pena izugarriaz sartu zen hegazkinean. "Hara joan baino lehen banekien benetan jendea pobrea zela, egoera txarra zela, agian azken 10 urteetan irakurri duzu zer pasatu den San-



Jose Angel Mikeo irakaslea nikaraguar hurrei klaseak ematen.

dinismoarekin eta EEUU-ek ze influentzia duten Hego Ameriketara..., baina joaten zara bertara eta ezin duzu sinestu ere egin, lehenengo astebetea erreakzionatu ezinka izan ginen, baina etortzeko orduan sekulako penaz" esan digu Mikeok.

Ertamerikan Mikeok anekdota ugari ere izan ditu: "ban Euskal Herriko jende asko zebilen eta irratitik entzun nuen Nikaragua eta Euskadiren arteko futbol partidu bat jokatu zela eta hango obituek ere asko harritu ninduten, ban gazteek 15 urte dituztenean "fiesta de puesta de largo" egiten dute eta jai horretan pobreenak ere bere arropa dotoreenekin irten eta sekulako jaia egiten zuten".

Eskola 4 kmtara

Eskola ordutegiari dagokionez, bertako ikasleek goizez 8etatik 12etara izaten dituzte klaseak eta arratsaldez 2etatik 6etara, baina klaseak ez zuten formalitate handiegirik: "ikasleak 4 km oinez egin ondoren eskolara joan eta ban irakasleek ikasleei esaten zieten bilera bat zutela eta orduan irakasleek berriz etxera joan behar izaten zuten. Eskolaz kanpo haurrek lana egin behar dute eta fruitu bilketa edo baldin badago 3 hilabetetan lan egin beharra dute eta ezin dira klasera joan, alde horretatik Nikaraguako bezkuntza sistema ez dago bertako beharrei egokituia, irakasleek azterketak egiteko ordaindu egin behar zuten eta orduan kontutan izanda familia bakoitzean 10 seme-alaba zeudela, ea nork egiten zituen azter-

ketak!".

Beste elkarte batzuk

Herri azpigaratuei laguntzeko badira beste elkarte batzuk Nazioartean aritzen direnak: Mugarik Gabeko Medikuek, Vetermon, Caritas, Manos Unidas, Cruz Roja, Askapena

ea... Elkarte horiek proiektu ezberdinak bultzatzen dituzte, horien artean albaitariarik animalien zainketa bultzatzen dute, medikuek osasunaz arduratzen dira eta beste batzuk giza laguntza ematez aparte materiala ere bidaltzen diete herri behartsuei.

Elkarte guzti horiek ez

daude gobernuen menpe eta beraien laguntza emateko debalde lanean aritzen diren pertsonen baliatzen dira.

Talde edo elkarte guztiek helburu bakarra dute: ahaztuta ditugun herrialde pobre eta azpigaratuei ahalik eta laguntza handiena eskaintzea, eta horretan dihardute.

Aitor Sanz 29 urteko bergararra pasa den Iraiaren 8an Indiara, Calcutara hain zuzen, bertakoei bere laguntza eskaintzera joan zen. Aitorrek bertan zaharrak hiltzeko garaia heltzen zainean joaten diren etxe batera zaintzaile moduan joan da. BERRIGARAK berarekin ezin izan du berba egin, baina bere arreba Isarekin elkarriketatxo bat izan dugu.

- Zergatik hartu du zure anaiak Indiara joateko erabakia?


- Nire ustez hango bizimoduak asko erakartzen zuen eta han eman dezakeen laguntzak asko betetzen zuen. Gainera Gastetzen zaharren egoitza batean nagusiak zaintzen aritu da eta esperientzia horrekin "moridero" delakora joan da urtebetez.

- Zeinen edo zeren bitartez joan da Aitor Indiara?

- Berarekin "Proyecto Hombre"n izandako neska baten lagun batzuren bitartez erabaki zuen hara joatea.

- Berak han zer espero du aurkitzea?

- Beldur pixka batekin ere joan da. Indiari buruz



Aitor Sanz Calcutako behartsuei laguntza eskaintzera

Bere arreba Isarekin berriketan

zekien gauza bakarra zuki edo nik jakin dezakeguna daki, gero "La Ciudad de la Alegria" filmea ikusi eta berehala hara joateko gogo gehitu zitzaion.

- Familiakoek nola hartu duzue bere erabakia?

- Nik hasieran zoratuta zegoela pentsatu nuen, gainera berak badiu lagunak Komite Internazionalistetan Hegoameriketara daudenak eta esan nion alde egiteko

gogo bazuen hara joateko, hizkuntza aldetik behintzat erraztasun gehiago aurkituko zituela. Baina berak esan zigun han badagoela dagoeneko nahiko jende eta Indiara lagun batekin joan da eta bertan, Indian, Txagorritxoko mediku bat ere badago eta horrek trankilidu gaitu. Gainera duela gutxi deitu du eta oso ongi dagoela adierazi digu.

FS
oto sistema

Apbéniz

**ARGAZKIAK
ORDUBETEAN**

- ✓ Diapositiba errebelatzeak.
- ✓ Karneterako argazkiak momentuan.
- ✓ Argazki materialen salmenta eta konponketak.
- ✓ Jaunartze, bataio eta ezteietako erreportaiak.

Kruz Gallastegi 2, ☎ 76 00 50

Hirugarren munduko herrialdeei laguntzarik ematen al diezu?



Patricia Urrutia
23 urte, ikaslea

Ahal dudanean bai. Ondo iruditzen zait baina askotan ez dakizu diru hori heldu behar den lekura heltzen den ala ez.



Julio Jimenez
26 urte, langilea

Ez dakit, kaña eman beharrean hobe arrantzan egiten erakusten badiegu. Baina bai, ahal dudanean bai.

**ETXE-
-AUNDI**


**Negozio bazkariak
Ezkontzak
Banketeak**

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56
OÑATI



Conce Urteaga
39 urte, etxeakoandrea

Ondo dago besteei laguntzea baina nere ustez hemen ere beharra badago gaur eguneko egoera ikusita.



Carlos López
25 urte, langilea

Bai, sarritan eman izan dut dirua, Amnistia Internazionalari esaterako. Beharrezkoa da.

**OHO eta INGELES
KLASEAK**

MAILA GUZTIAK

☎ 76 17 18 (Jesus)



Gizon Emakume

Barrenkale 35 BERGARA

MAHER
Biltegiak L.E.

Oihal etxea

Bidekurutzeta 29,
Tfnoa: 76 22 90 - 76 26 75

CAMACHO

Drogeria
Usaindegia

Bidekurutzeta 24, Tfnoa: 76 13 35
BERGARA

SURPE
Taberna

Erdiko Plaza, Tfnoa: 76 64 97
ANTZUOLA

**Aldoka
Maldoka**
TABERNA

Kruz Gallastegi, BERGARA

GURIA

Bidekurutzeta 5,
Tfnoa: 76 20 34



Glamour gutxiago baina zine hobea

Aurtengo Donostiako Nazioarteko Zinemaldiaren ekitaldia onik atera da, hutsegite barkaezinak ere izan diren arren. Hala nola, "Sara" iraniarrarekin batera zinemaldiko irabazle "ex aequo" izan den "Principio y fin" pelikularen emanaldiko bobinen ordenu aldaketa eta aparteko emanaldietan formato desegokiekin gertatu diren hutsegiteak.

Hori bai, aurten autografo biltzaileek ez dituzte gogoko trofeoak lortu. Donostia Saria izan den Robert Mitchun muturbeltz eta ia lotsagabea, eta iritsi eta ia inork ikusi gabe aldegiten zuten izar iheskorak izan ditugu gure artean.

Pelikulei dagokienez, betikora goaz, aparteko emanaldiak justukoak, aipamen berezia merezi dutelarik zinegintza chicanoaren ziklo atseginak eta Zabaltegiko bitxi txiki batzuek. Baina Atal Ofizialak ez du inor harritzen, eta ez du harritzen Donostiakoa bezalako lehen mailako zinemaldiak ezin baitu beste zinemaldietan ikusitako pelikulak lehiaketan sartu, eta guk baino lehenago aukeratzan dute Berlin, Cannes, Venecia, edo Montrealek berak ere. Zer gelditzen da aukeran? Ezer gutxi. Egin daitekeen galdera, beraz, zera da "ez al litzateke hobe, batez ere publikoarentzat, nahi duena zinema ona ikustea izanik, zinemaldia bigarren mailakoa izatea, Valladolidekoa den bezalaxe?"

Horrela edozein pelikula ekar genezake, beste zinemaldietan ikusia edo ikusi gabekoa, baina baliteke horretarako snob-egiak izatea.

Marta Moral



Ez omen da torturatzen

"Poliziaren jokaera zalantzan jartzeko arrazoirik ez dagoela dio Barne Ministroak" irakurri dut gaurko Egunkaria-n. Zinismo kutsua hartu diet Corcuera-ren hitzei, niretzat arrazoi ugari dago eta:

- Arraroa iruditzen zait 30 urtetako neska osasuntsu bat bapatean bihotzekoak jota hiltzea... tartean arrazoiaren bat ez bada, noski. Kasu honetan, eta kontuan hartuta non eta ze egoeratan eman zion...

- Gurutze Yantzi-ren senarrak egindako adierazpenak, emaztearen oihuak aditu zituela dioenean, printzipioz-Corcuera jauna- polizien txosten edo deklarazioek beste balio duten adierazpenak.

- Kalparsorok leihotik salto egin zuen edo bota egin zuten? Salto egin bazuen, zergatik? Atxilotuta egonda, ez zeraman esposarik? Autopsiaren arabera edanda zegoen, nork mozkortu zuen? eta zertarako?... ETAk, kaleratutako komunikatuan, dioenez, Kalparsoro abuztuan atxilotu zuten, eta normalean, ETAk ez ditu komunikatuak nolnahi ere kaleratzen

Beste atxilotuei baino tratu hobea eman zitzaiela" dio Corcuera Egunkaria-n ere; ondorioz, pentsa daiteke, badela tratu txarririk, edo behintzat txarragorik, jasaten duenik ere.


Zure mutilen jokaera zalantzan jartzeko arrazoirik badago Corcuera Jauna, arrazoi gordinak, bi heriotza, edo ez zaizkizu nahikoa arrazoi iruditzen?

Beñardo Kortabarria

LARREA

TABERNA

Kale Barren 17
ANTZUOLA



GAZTELU

Burdinaki denda

Mintegi 1, Tfnoa: 76 32 48 / 76 34 50 BERGARA

FANCY

GAZTEEN MODA!

Bizkai Etorbidea, 1 Etxabea ARRASATE Tfnoa: 77 14 24

BERGARA

Karrozeria

Txapa - Pintura

Zubieta, 46 BERGARA
☎ 76 12 31

Beheko Taberna

Menestra eta konejoa dira gure berezitasunak.

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

ARREGUI, E.M.



AROSZTEGIA

- AROZLAN MEKANIKOAK
- SUKALDEKO ARMAIRUAK
- HORMA ARMAIRUAK
 - ATEAK, etab.
 - TARIMAK-PARKETAK
- NEOPRENOZKO JUNTADUN EGURREZKO LEIHOAK
- PVCzko LEIHOAK

Urteaga, 20. 76 11 73

Erakusketa: Bidekurutzeta, 38



TOSHARE

ILEAPAINDEGI MISTOA
ESTILISTA.

Artekale 29. Behea

Tfnoa: 76 29 70

BERGARA

KIZKUR




Ileapaindegia
Solariuma

Bolu 51, Tfnoa: 76 50 32

AGIRREBEÑA


Oinetakoak
Erropa denda
Lenzeria

Urteaga 5, Tfnoa: 76 18 29



□ Jose Telleriarteren 104. urtebetetzea

Jose Telleriarte Bergarako aitona 104 urte bete zituen astelehenean, irailak 27. Jose nahiko ondo omen dago osasun aldetik baina gaur egun ezin ditu hain gustoko zituen pasiadak eman. Bere hitzetan "mendian ibili eta ez edan eta ez erre" izan dira 104 urtera iristeko sekretuak. Astelehenean hainbat bisita jaso zuen Erresidentzian, tartean Victoriano Gallastegi alkatea eta Gregorio Iruretagoiena Erresidentziako administrariarena. Argazkian alkatea Joseri erregalatutako txapela berria jutzen. Zorionak!!



□ Udaletxeko teilatua

Udaletxeko teilatua jartzeari ekin diote berrizte lanetan diharduten langileek. Teilatuaren euskarria egurrezkoa da eta gainetik teilak izango ditu. Lehen euriak heldu direla kontutan izanik, langileei ere ez zaie batere gaizki etorriko aterpean lan egitea...



Tfnoa: 76 20 61

□ Uda eta urari agur

Udazkenaren etorrerarekin batera, kanpoko igerilekuak itxi eta barrukoak zabaldu behar izan dira.

Kirol Zerbitzuak jakitera eman digunez, aurten 4.125 (iaz baino 24 gehiago) bazkide izan dira eta udan 44.437 sarrera zenbatu dira kanpoko igerilekuetan. Egunik arrakastatsuen uztailaren 27a izan genuen, 1.565 pertsonarekin.

"Eguraldiak gehiegi lagundu ez duen arren, egia da jende gehiago ere gelditu dela Bergaran", arduradunen esanetan. Kexu bat ere luzatu digute, "jendea gaizki portatzen da eta ez dira bete beharreko neurriak betetzen".



□ Orkesta Sinfonikoa Huelvan

Primeran pasa omen dute Orkesta Sinfonikoko lagunek eta hauen laguntzaileak Huelva aldean. La Mision lanarekin arrakasta handia lortzeaz gain, turismo eta astialdirako aukera ere izan dute. Eguraldiak lagundu die bai eta eguzkia aprobetxatuz *moreno* dotorez bueltatu dira bergararrak, hondartzan ia egunero izan dira eta. Guztiek, izandako harrera bikaina eta Andaluzian igarotako egun zoragarriak goraiatu dituzte. Argazkian Mazagoneko Gazte Aterpetxean ikus ditzakezue. Eta "oporretatik" bueltan, bihar berriz ere "Iana"ri ekingo diote San Pedron emango duten kontzertuarekin...

Zertan dibardute ba?

JOKIN ETXANIZ



Hilabete batez lesionatuta egon ondoren, Jokin Etxanizek bere berragerpena egin zuen Oñatin Zezeagarekin batera asteazkenean, Unanue eta Galarzaren kontra 22 eta 15 galduz.

AINHOA LARRAÑAGA



ETEOn (Oñatin) enpresari ikasketak burutzen ari den 19 urteko bergarar honek ETB-leko "Gezurra nagusi" programan parte hartu zuen astelehenean. Ez zuen sari nagusia eramaterik izan.

KONDE PANADEROKUA



Burdiñate, 1 ☎ 76 12 31



ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA - BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16, Tfnoa: 76 23 94- 76 12 65 BERGARA

Umore giroan

Ermuko eztabaidak

"Txindurritarrak" bizkaitarrista aundixak ziran. Beren goixan, baiña, oso karlista zan famili bat bizi zan. Dana dala, oso ondo eruatzen ziran eta umore aundixakin gaiñera, alkar zirikatuz. Beñ baten, deitu zetsen goikuak:

- I, Txindurri, ointxe goiazak zuen banderia jatera: porru patatak txori-zuakin.

Txindurrik:

- Bai, gu be ointxe goianaz karlisten banderia jatera: arrautza prijiuak piparrekin.

Ondo jaten danian

Plaentxiar batzuk etorri dira konbidau Eibarrera. Maixan jarri ordurako asi dira eibartarrei adarra jotzen.

- Eztaok emen ondo joango dan itxurarik, palilluak be zapalak ipiñi do-zuez. Guk biribilak jaukaguz.

- Gaiñera bikarbonatorik be ezto-zue ipiñi, ta barriz, ondo jaten danian, bikarbonatua derrigorrezkoa dok aixa-kiak botatzeko.

Orduan eibartarrak:

- Ondo jaten danian eztok egoten aixientzako lekurik.

Pedro Zelaia

ORAIN DELA 20-25 URTEKO NOTIZIAK



Argozkian, I. Herriarteko Pelota Txapelketa irabazi zuen bergarar taldea.

URRETXUARREI 2 ETA 1 IRABAZIZ, BERGARA GAILENDU ZEN HERRIARTEKO I. PELOTA TXAPELKETAN

Lehenengo partiduan infantil mailako pilotariak aritu ziren: bergararren aldetik, González eta Azkoaga eta urretxuarren aldetik García eta Jeremias. Lau pilotariek gauza politak egin ondoren bergararrak izan ziren nagusi: Bergarak 16 eta Urretxuk 10.

Hurrengo partiduetan, jubenetan, Soraluze eta Etxaniz urretxuarrek 18 eta 13 irabazi zieten Altuna eta Gallas-tegi bergararrei. Benetan partidu gogorra izan zen. Denboraldi batez galtzailak joan ziren aurretik baina azkenean urretxuarrak izan ziren nagusi.

Gauzak era horretan, berdindurik

zeudela, ikusmin eta emozio ikaragarria zegoen garaipena nork eskuratuko zuen jakin beharrez. Hirugarren partiduan Garitano eta Etxaniz ziren bergararren ordezkariak eta hasiera-hasieratik erraz nagusitu zitzaizen Garcia eta Muga urretxuarrei. Azkenengo emaitza 22 eta 8koa izan zen.

Gipuzkoako Diputazioaren kopa ederra Azkoitiko alkateak entregatu zion Bergarako ordezkari zen Larrañaga jaunari eta Nikolas Lasarte jaunak eman zion Aurrezki Kutxa Munizipalak, frontoiak hobetzeko eskaintzen dituen 200.000 ptzak.

Asier Madinabeitia, Ane Goenaga eta Josune Iñarrak
hemerotekatik bildutako notiziak

INFERNUKUA TABERNA

Mahasterreka 23, Tfnoa: 76 18 49

MUJIKA

Burdinaki denda

Bidekurutzeta 8

☎ 76 28 67

BERGARA

TXISTU MOTOR

KOTXE BERRIZKETAK
SKODA ZERBITZU BERRIA



Volkswagen taldea

Aribar Poligonoa. San Juan
auzoa ☎ 76 09 31 BERGARA

BONOFOTOA



M. A. Ekoroberezibar



ANE BLANCO

ANE BLANCOk jaso du aste honetan BONOFOTOko saria. Azken BONOFOTOko argazkian agertzen zen plaka Euskaltzaindiako sortzaileetarikoa bat izan zen **Koldo Elezialderen** omenez jarria da **Goenkale** kalean. **Aneren** izenean iritsi zaigu erantzun zuzena (izan dugun irabazlerik gazteena, duda barik) eta berarentzat dira BONOFOTOko **10.000** pztak.

ZORIONAK argazkian bere amarekin agertzen den **ANE BLANCO**ri.

Zein da baserri honen izena?

Izena: _____ Abizena: _____ Tfnoa: _____

Saria:
10.000 Pzta.

Moztu paper hau eta
ekarri astebete baino lehen:


BERRIGARA
Errotalde Jauregia Bergara

ELKAR

Arruriaga 1, behea BERGARA ☎ 76 58 16



- FOTOKOPIAK KOLORETAN
- PLASTIFIKAZIOAK
- PLANOEN KOPIAK
- JENDEARENTZAKO FAXA
- ENKUADERNAZIOAK
- Termo-enkolatuak
- Burdinazko espiralak
- Plastikozko espiralak
- Fazikuloak



ESKAINZA PAREGABEA: DIN A-4 PAPERA (500 orri): 495 pzta.

Txirrindulari entrenadoreak

Deba Garaiko Udal Kirol Zerbitzuek eta Gipuzkoako Txirrindulari Elkargoak herrialdeko kirol zuzendari tituloa lortzeko ikastaro bat antolatu dute. Klaseak azaroko larunbatetan izango dira (asignatura batzuk euskaraz emango dira) eta prezioa 10.000 pta.koa da. Izen-ematea urriaren 29an bukatuko da.

Pelota

Iker Muruamendiaraz bergarar pelotariak eta Ondar-goitia zornotzarrak Berraondo-Idiakez antzuolarren aurka jokatu dute San Migeletako Promesa Txapelketako finala larunbatean, Oñatin, 22.30etan.

400 gaztetxo inguruk hartuko dute parte Eskola Kirolean

Aste honetan bertan amaitu da 1993-94 ikasturteko Eskola Kirolean parte hartzeko izena emateko epea. Udal Kirol Zerbitzutik eman dizkiguten datuen arabera, eta hiru ikastetxeak kontutan hartuz (Aranzadi Ikastola, Mariaren Lagundia eta San Martin ikastetxea) aurre-kirolean (O.H.O.ko 1.go eta 2. mailakoen-tzako jolasak) 60 neska-mutil arituko dira, eta askotariko kirolean, berriz, 209 (3. mailatik 6.era bitarteko benjamin eta alebinak).

Futbola eta eskubaloia

7. eta 8. mailakoek kirol bakar bat aukeratzeko aukera izan dute eta honako hauek izan dira arrakasta gehien izan dutenak: futbola (30 neska-



Gaztetxoek kirol aukera zabala izango dute aurten ere.

mutil), eskubaloia (30), piraguismoa (25), saskibaloia (15), boleibola (12) edota atletismoa (11). Jende gutxien jaso dutenen artean xakea, waterpolo, igeriketa eta pelota aurki ditzakegu, kopuru hauek definitiboki ez diren arren.

Nobedade gisa, aurten partaide bakoitzak 1.500 pta.ko kuota ordaindu

behar izango du, guztiko aurrekontua (4 milioi pta. inguru) osatu ahal izateko. Horrez gain, hementik aurrera *Bergarako Eskola Kirolaren Kontseiluak* zuzenduko du Eskola Kirola eta ikastetxeek koordinadore eta teknikoak kontratatu beharko dituzte, Udalak koordinazio orokorra eramango duela.

Ehiza denboraldia zabalik

Joan den igandean basurdearen ehiza denboraldia zabaldu ondoren, datorren urriaren 12an hegazti guztien irekiko da. Oilagorra Ehiza eta Arrantza Elkarteak bazkideei lizentziak tramitatzeko 500 pta.ren truke. Gaur egun 350 ehiztari inguru dira Oilagorran eta horiez gain, beste 150 ehiztari omen daude Bergaran. Urri amaiera arte iparraldetik datozen hegazti pasa izango da eta urtarril amaieran denboraldia bukatuko da. Oilagorrako kide baten ustetan, *"pasa amaitutakoan gero eta jende gutxiagok irietzen du kanpora"*.



LILURA

EDERTZE INSTITUTUA

Bidekurutzeta, 7
76 31 71
BERGARA

Mari Carmen

ARRAINDEGIA

Arrain freskoak, izoztuak eta mariskoak

Kruz Gallastegi
76 15 90 / 76 40 73



DEBA GARAIA

INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA

Arrasate / Bergara / Elgoibar
76 21 80
T. Aranzadi, 2 behe. 76 06 37



Mekolaldeko eskolako umeak

Orain dela 25 urte inguruko argazkian eskola ondoko futbol zelaian ageri zaizkigu garai hartan Mekolaldeko eskolan ikasten ziharduten neska-mutikoak eta maistra. Osintxu, Buiñondo eta Basalgoko umeak ageri dira erretratuan eta Mekolaldeko eskola beren auzokoa baino hurbilago zutelako joan ohi ziren orain dela 3-4 urte arte lanean jarraitu izan duen eskola honetara.

Ondorengoak dira bertan agertzen direnak, ezkerretik eskumara:

Lehen ilaran: Francisco Javier Leon, Inmaculada Bideluze, Francisco Javier Arevalo, Niko De Dios, Tomas Urzelai, Luis Javier Martinez eta Gotzon Alberdi.

Bigarren ilaran: Mari Karmen Urrutia, Jesus Mari Urzelai, Josu Alberdi, Maria Eugenia (maistraren alaba), Lourdes Elizburu eta Irene Larrañaga.

Hirugarren ilaran: Patxi Palomares, Marili (maistraren alaba), Encarni Martinez, Begoña Irazabalbeitia, Arantxa Urzelai, Juani De Dios, Mari Karmen Arevalo, Isabelita Rajado, German Astigarraga, Jose Mari Urzelai, Luis Mari Astigarraga eta Luisa De Dios. Maistra: Señorita Kontxita.

Estepan Plazaola

Argazkia: Juani De Dios

ROSAR
PUB

Tfnoa: 76 38 57
Irala 1

JAUJA KIROLAK
Irizar 2, Tfnoa: 76 14 95

T
GANBARA
B
E
R
N
A

Berezitasunak:
Pintxoak eta
kafea kremarekin

Irala z/g, Tfnoa: 76 55 75

ETXEBIZITZA

Garajea salgai Torrekuan. ☎ 76 52 45.

Etxebizitza salgai Iparragirre kalean. ☎ 76 40 82.

Pisua hartuko nuke alokairuan. ☎ 79 83 50.

Pisua salgai San Lorentzo 1ean. ☎ 76 27 35.

Etxea alokatzen da Osintxun. ☎ 76 49 60.

Pisua salgai San Lorentzon. ☎ 76 27 35.

Pisua salgai San Lorentzon. ☎ 76 27 35.

Pertsona bat behar dugu Deuston pisua osatzeko ☎ 76 49 69.

Garajea salgai Iparragirre kalean. ☎ 76 28 52.

Donostiara Ibaetara egunero kotxean joateko jendea behar dut. ☎ 76 28 52. (iluntzean).

DENETARIK

MSX ordenadoreko lau joku salgai. Kartutxoak. ☎ 76 59 47.

Argazki kamera eta kartera galdu ditut San Antontiotik Gorlara bidean. ☎ 76 52 39.

Nintendo bat salgai (S. Mario Bros) ☎ 76 39 34.

Karabana bat salgai. Ia berria. ☎ 77 04 98.

Argazki makina salgai: Nikon AF-601, 35-70 objektiboduna. ☎ 76 00 62.

Seat Panda salgai. SS-AL matrikula, 30.000 Km. ☎ 78 70 30.

Pastor-aleman txakurkumak salgai. ☎ 76 55 29.

Ume kotxe bat salgai. ☎ 76 02 00.

Renault 21 TXE bat salgai. 1988koa. Egoera onean. ☎ 76 38 68.

OPEL CORSA City, BI-AK salgai. ☎ 92-6201918 (Gorka). Lan orduetan.

Uberan taberna salgai. Erreztasun haundiak. ☎ 76 25 99.

Opel Cadet 1800 i kotxea salgai (SS-AK) ☎ 76 45 81.

Bigarren eskuko bizikleta estatiko bat erosiko nuke ☎ 76 50 58.

Transformatutako Vantte furgoneta salgai. Ohe, sukalde, izozkalilu, mahai, iturri eta guzti. ☎ 79 28 81.

TV GAME 2.600 bideo kontsola salgai: 224 joku eta mando eta guzti. 4.500 pzta. ☎ 76 54 12 / 76 13 14.

Renault Super 5 kotxea salgai. BI-AL matrikula. ☎ 76 52 90.

Doberman arrazako txakur emea salgai. 40.000 pzta. ☎ 76 57 67.

Ford Fiesta kotxea salgai. SS-K. Ondo zaindua. ☎ 76 58 12.

Egunero goizeko 7etan Zumarraga edota Tolosara abiatzeko kotxea behar dut. ☎ 76 48 78.

LANA

OHO eta ingeles klaseak emango nituzke ☎ 76 23 67 / 76 22 90.

Etxeak garbitu edota pertsonak zainduko nituzke. ☎ 76 50 63 (Marijo).

OHO eta ingeles (maila guztiak) klaseak ematen ditut. ☎ 76 17 18 (Jesus).

Emakumezko batek haurrak zaindu eta etxeko lanak egingo lituzke. ☎ 76 36 06 (Marisol).

Etxeko lanak egin eta umeak zainduko nituzke. ☎ 76 26 63.

Ingeleseko klaseak ematen ditut. ☎ 76 26 63.

Ingeleseko klaseak ematen ditut. ☎ 76 31 36.

Ordenadorez lanak pasatzen ditut. ☎ 76 05 43.

Ilea eta bizarra moztera joango nintzateke etxez etxe. ☎ 76 41 98.

Emakume batek etxeak garbituko lituzke ordu batzuetan. ☎ 76 47 67.

Hildakoak

Carmen Imaz Goñi
irailak 22, 86 urte

Juan Arretxe Gallastegi
irailak 26, 88 urte

Maria Angeles Manso Andres
irailak 29, 59 urte

Jaiotakoak

Gorka Oregi Mellado
irailak 21

Silvia Sebastian Pombar
irailak 22

Irati Madariaga Eguren
irailak 25

AUTOPULLMANS ARABA

Autobusak

Eskurtsioak eta bidaiak edozein tokitara

ANGIOZAR ☎ 76 55 70



TEMPRA STADIO



ERAKUSKETA:

Ibargarai 39
BERGARA

TAILERRAK:

Antigua Auzoa
ANTZUOLA

Autoberezi **FIAT**

ZERBITZU OFIZIALA

MOTA GUZTIETAKO INSTALAZIOAK

Koldo Eleizalde, 8 BERGARA ☎ 76 00 00

ELECTRICIDAD
ELKAR
ELEKTRAGINTZA
☎ 76 00 00